

LARDIZABAL ESKOLA

IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA



AURKIBIDEA

<u>1. ESKOLAREN INGURUAN</u>	2
1.1.IKASTETXAREN TESTUINGURUA	2
1.2.PRINTZIPIOAK ETA NORTASUN EZAUGARRIAK	2
1.3.HEZKUNTZA ESKAINTZA	4
<u>2.ANTOLAKETAREN ESPARRUA</u>	5
2.1.ikasturtearen antolaketa	5
2.2.hezkuntza komunitatea:organo, kide eta funtzionamendua	6
<u>3.CURRICULUMAREN ESPARRUA</u>	9
3.1.heziketa eta curriculuma	9
3.2.metologia	9
3.3.ebaluaketa	10
3.4.tutoretza eta orientazioa	12
3.5.aniztasunaren trataera	13
3.6. hizkuntzaren trataera	14
3.7.prestakuntza eta berrikuntza	15
<u>4.IRAUNALDIA ETA BERRIKUSPENA</u>	16

1. ESKOLAREN INGURUAN

1.1. IKASTETXEAREN TESTUINGURUA

Lardizabal eskola, Goierriko eskualdean kokatzen da; Zaldibiako udalerrian, hain zuzen ere.

Lardizabal Herri Eskola, izaera publikoa eta laikoa duen ikastetxea da. Gaur egun, herrian dagoen bakarra bada ere, bere sorrera ikastola eta “ eskola nazionalen” bateratzean datza (elkartze hau era naturalean eman zen). Herrian errotua eta herritarrei begira sortutako eskola izanik, herriko hainbat erakunde, elkarte eta eragile sozialekin harreman irekia eta gardena mantentzen du.

Eskola erakunde garrantzitsua da herriaren bizitza eta garapenean. Hala ulertzen dugu eskola komunitatetik, hala nola herriko beste erakundeek ere.

Testuinguruan errotutako hezkuntza lehenesten dugu; bizi garen eremu sozio-kulturala aintzakotzat hartzea nahitaezkoa baita ikaskuntza prozesua aurrera eramateko. Ikastea beraz integrazio prozesu bat ere bada, komunitate soziokultural bateko ekimenetan parte izatearen aldetik.

Gure helburua pertsonaren garapen integralaren sustatzea da. Hizkuntzaren arloan, euskalduna, euskara eta euskal kultura sustatzen duena, hala nola, eleaniztasunaren garrantzia azpimarratzen duena.

Azken urteetan eskolatu diren ikasleei erreparatuz, herrialde eta kultura anitzak bilakatu dira gelak, bide horretatik kultur- artekotasuna, adiskidetasun eta bizikidetzaren ikaslearen osotasun horretako osagai ulertzen ditugu.

1.2. PRINTZIPIOAK ETA NORTASUN EZAUGARRIAK

Eskolaren xede nagusia, ikasleari egunerokotasunean moldatzeko lagungarri izango zaizkion ezagutza eta baliabideak eskaintzea dugu. Honela, gizakiaren dimentsio anitzak elkartzen edo biltzen dituen ikuspegi ardatz hartuz, arlo afektiboa – emozionala (izaten ikastea) , intelektuala (ikasten ikastea), soziala (elkarrekin bizitzen ikastea) eta praktikoa (egiten ikastea) sustatuko duen bidea lehenesten da. Aukera honen bilakaera bermatze aldera ondorengo helburu eta printzipioak aitortzen ditugu:

Printzipioak:

- Pertsonaren garapen integralaren sustatzailea, hezkuntza emozionalean oinarritua.
- Erantzulea. Nork bere ekintzen ondorioei buruzko ardura hartzeko gaitasuna duena.
- Pertsonen arteko konpromisoa, adiskidetasuna eta elkartasun sustatzailea izango dena.
- Euskalduna eta eleanitza. euskara eta euskal kultura sustatzen duena eta eleaniztasuna bere egiten duena.
- Bizikidetzak. Giza eskubideak eta bizikidetzak demokratikoaren printzipioak erreferente dituenak.
- Hezkidea. Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasun eremua sustatzen duena.
- Ingurunean errotua. Herritar izateko eta gizarteratze aktiborako prestatzen duena.
- Plurala, akonfesionala, inklusiboa, errespetuan eta tolerantzian sustraitua. Giza duintasunaren balioa, funtsezko erreferente etiko gisa hartzen duena.
- Irakasleen gaitasun profesionalaren aldeko apustua egiten duena, berrikuntza pedagogikoak oinarri hartuta.

Helburuak:

- Gure ikasleak giza eskubideen, balio etikoen eta askatasunen errespetuan hezteko, sexuaren, arrazaren edo erlijioaren arabera bazterketa-jokabideak ekiditeko.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean euskararen erabilera sustatzea.
- Herriarekiko, komunitatearekiko, inplikazioaren eta parte-hartzearen kultura lortzea, erantzukizunak banatzearen mesedetan.
- Irakasleen garapen emozionala bultzatzea, hazteko eta pertsona arteko harreman positiboak eraikitzeke trebetasunak landuta.

- Irakasleen etengabeko formakuntza bultzatzea, berrikuntza pedagogikoak kontutan hartuz.

1.3. HEZKUNTZA ESKAINTZA

Lardizabal ikastetxean 2 etapa eskaintzen dira:

-Haur Hezkuntza: 2 urtetik 5 urtetara

-Lehen Hezkuntza: 6 urtetik 12 urtetara

Ikastetxearen ordutegia hau da:

- Iraila eta ekainean: 9etatik 12:30ak arte Haur Hezkuntzan eta 9etatik 13ak arte Lehen Hezkuntzan
- Ikasturtean zehar: 9etatik 12:30ak arte eta 14:15etatik 16:00tara.

Lardizabal D ereduko eskola izanik, euskara lehenesten da. Aldi berean, ikasleak eleaniztunak izatea bultzatu nahi da. Horregatik, euskaraz gain, 4 urterekin gaztelera lantzen hasten dira eta 5 urterekin ingelesa.

Ikasleak komunitateko kide aktibo eta parte hartzaile izan daitezen sustatzen da, irteeren eta erakunde eta agente kultural desberdinekin ematen diren harremanen bidez.

Jasangarritasunaren aldeko apustu egiten da, proiektu eta ekimen anitzak bultzatuz.

Zerbitzuei dagokienez, eskolak jangela eta garraioa eskaintzen ditu. Horrez gain, goizetan zaintza zerbitzua ere egoten da; Guraso Elkarteak kudeatuta.

2.ANTOLAKETAREN ESPARRUA

2.1. IKASTURTEAREN ANTOLAKETA

Ikastetxeak ikasturtearen antolaketa eta kudeatzeari dagokionean, prozesu horren nondik norakoa zehatzeko txosten eta dokumentu desberdinak osatzen ditu. Ikasturtearen bilakaera antolatu eta egoki bideratzeko ahaleaginean hiru une edo fase bereizten direlarik: plangintza, hausnarketa eta berrantolaketa.

- . Plangintza - Ikastetxeko urteko plangintza (IUP).

Ikastetxeko jarduera antolatu eta kudeatze aldera, eskolak urtero Ikastetxeko Urteko Plangintza (IUP) burutzen du. Bertan irakaskuntza jarduerak, prestakuntza jarduerak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak zehazten dira; urteko kudeaketa programa, alegia.

- . Hausnarketa - Urteko memoria:

Ikastetxeko urteko plangintza erreferentziazat hartuz, aurreikusitako jardunaren betetze maila zein bilakaera deskribatzen duen txostena da memoria. Bertan jasotzen diren ondorioen bidez, hurrengo ikasturterako plana diseinatzeko hausnarketaren abiapuntu esanguratsua dela kontsideratzen da.

- . Berrantolaketa - Hobekuntza plana:

Ikasturte berriaren aurrean lan jarduna berriro antolatu behar izaten da eta horretarako aurrekoaren inguruko hausnarketak aintzat hartuz, zer hobetu, zer aurreratu ... erabakitzeko unea egokitzen da. Honela, eskolak, ondorioak aztertu eta ikasturte berrirako hobekuntza batzuk proposatzen ditu, eta hauek "Hobekuntza Planean" jasotzen dira.

Aurreko hiru dokumentuak osatu ahal izateko, erreferentzi eta ardatz bezala honako hauek erabiltzen dira:

- Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP)
- Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA)
- Hizkuntza Proiektua

- Aniztasunari erantzuteko plana
- Tutoretza plana
- Bizikidetza plana
- Hezkidetza eta genero-indarkeriari aurre egiteko plana
- Ikastetxearen prestakuntza plana.

Eskolako prozesuak dinamikoak diren neurrian eta komunitatearen izaera ere aldakorra den heinean, dokumentu guzti hauek etengabe berrikusi eta egokitzen dira.

2.2. HEZKUNTZA KOMUNITATEA: ORGANO, KIDE ETA FUNTZIONAMENDUA.

Eskola, hezkuntza komunitate konplexu eta dinamikoa den aldetik, erakunde antolatu bat da eta bere egituraketak garrantzi handia dauka dagozkion zereginak eta helburuak betetzerako garaian.

Ikastetxearen antolaketa ereduak araudiak zehazten du hein handi batean. Partaidetza organo desberdinak daude eta hauek arduratzen dira eskolako funtzionamendua erregulatzeaz eta kudeatzeaz. Aldi berean, eskolako egitura zehazten duen organigramak eskolako estamentu guztien arteko harremanak ahalbidetzen ditu.

Lardizabal eskolako estamentuak lau dira: familiak, irakasleak, ikasleak eta udal ordezkariak. Hauek antolakuntza eta hezkuntza praktikan parte hartzen dute ikastetxeko batzorde eta foro desberdinen bitartez. Kideen elkarlana eta koordinazioa gauzatzeko batzorde desberdinak antolatu dira:

- Irakasleez osatuak :

- Zuzendaritza taldea: Talde hau zuzendariak, ikasketa buruak eta idazkariak osatzen dute.
- Klaustroa: Aginte organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da.

- Batzorde – Pedagogikoa: Ikasketa buru eta zikloko koordinatzailez osatutako taldea da.
- Ziklo koordinazioa: ziklo berdineko irakasleen elkarlana errazteko taldea da.
- Ziklo bilera: zikloko koordinatzaileak eta ziklo horretako irakasleek osatutako taldea da.

- Familiako ordezkariak soilik osatuak:

- Guraso Elkartea.

- Estamentu desberdinetako partaideez osatuak:

- Eskola Kontseilua : irakasleak, gurasoak, eskolako langile eta udaleko ordezkariak osatzen dute.
- Batzorde Iraunkorra: Zuzendaritzak taldeak, Guraso Elkarteko bi kidek eta udaletxeko ordezkariak osatzen dute.
- Behatokia: irakasleek, ikasleek eta gurasoek osatzen dute.
- Batzorde ekonomikoa: Zuzendaritza taldea eta Guraso elkarteko kide batek osatzen dute.
- Jangela Batzordea eta Garraio Batzordea: arduradunak, zuzendaria eta Guraso elkarteko kideek osatzen dute.

Bestalde, eskolak zenbait kanpo-zerbitzuekin ere harremanak ditu eta beraiekin koordinatzen da besteak beste: Udala, Ikuskaritza, Hezkuntza saila, Berritzegunea, Beasaingo Osasun Mentala, Zaldibiako Gizarte laguntzailea, Gautena, Aspace, DBH Ikastetxeak

Jarraian, eskolako partaidetza eredua islatzen duen organigrama ikusi daiteke:



- ✓ KLAUSTROA
- ✓ ZUZENDARITZA
- ✓ BATZORDE PEDAGOGIKOA

- ✓ GURASO ELKARTEA

- ✓ ESKOLA KONTSEILUA
- ✓ BATZORDE IRAUNKORRA
- ✓ BEHATOKIA
- ✓ BATZORDE EKONOMIKOA
- ✓ JANGELA BATZORDEA

3.CURRICULUMAREN ESPARRUA

3.1.HEZIKETA ETA CURRICULUMA

Gaur egungo gizarteak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko, gure hezkuntza sistema garai berrietara egokitu behar izan da. Hezkuntzak ezagutzen transmisio hutsetik haratago joan eta bizitzarako hezi behar duela aldarrikatzen da, eta eskaera horri erantzuteko, konpetentzien araberrako ikuspegia sortu da. Heziberri 2020 planak norabide hori jarraitzen du eta edukiak jakitetik haratago, pixkanaka ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak ezagutzen aplikaziora bideratzen hasi dira. Jakintza (ezagutzak), egiten jakitea (prozedura eta trebetasunak) eta izatea (jarrerak, balioak) integratuz, eguneroko egoerei aurre egiteko konpetentzietan trebatzeko erronka gureganatu eta horretan trebatzen hasi gara.

3.2.METODOLOGIA

Printzipio metodologikoak, ikastetxeko hezkuntza prozesuen eta jardun pedagogikoaren nondik norakoa zehazten duten ildoak dira. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen norabidea gidatzen duten aldetik eskolako prozesu didaktikoen oinarri bezala ulertzen ditugu. Oinarri hauek elkarren artean osagarri dira eta beraien arteko harremanek ikasgeletako ikaskuntza anitza eta esanguratsua ahalbidetzen dute. Gurean ondorengoak azpimarratzen ditugu:

1-. Pertsonaren garapen integrala balioestea: Ikaslea bere osotasunean hezteak, ezagutza, emozio eta harremanei erreparatzea eskatzen du.

2-. Norbanakoaren berezitasunari erreparatzea: Talde mailako ekintzez gain, ikaslearen beharrei erantzungo dien arreta eta jardun zehatzak bideratuko dira.

3-. Ikaslearen adierazpen eta sormen gaitasunen garapena: Ikasleei lan eta ekintza irekien proposamenaren bitartez, sortzeko, asmatzeko eta adierazteko gaitasunaren garapena sustatzen da. Pentsamendu dibergentea, ezberdintasuna, originaltasuna eta irudimenaren lanketa baloratzen dira.

4-. Onespen eta lankidetzaren giroa indartzea eta balioestea: Giza harremanen bilakaera egokiak ikaslearen garapen sozial, emozional eta kognitiboaren bultzada esanguratsua ahalbidetzen du.

5-. Ikaskuntza esanguratsua sustatzea: Ikasketa berriak eskuratzeko asmoz, aurreko esperientzia eta ezagutza berrien arteko erlazioak bideratzen dira; hau da, ikasten ikastea bihurtzen da helburu.

6-. Ikaslea, ikaskuntza prozesuaren solaskide aktibo ulertzea: Ikaslearen inplikazio, hausnarketa, saiakera eta interesa ere ezinbestekotzat hartzen dira; hots, jardun pedagogikoa dinamikoa izan behar da.

7-. Jardun pedagogiko eta metodologiko desberdinen aitortza eta erabilera:

Konpetentzien araberrako hezkuntza ereduak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua kudeatzeko ikuspegi zabalagoa proposatzen duen aldetik, ikaskuntza funtzional eta esanguratsuen bidea lantzea suposatzen du. Arlo ezberdinetako ezagutzak elkar harremanean lantzeak, ez du ezagutzaren garrantzia gutxien; adierazpen, prozedura eta jarrerak jokoan jartzeko bidea baita.

8-. Ingurune sozio- kulturalaren eragina eta parte hartzea: Ikaslearen garapena testuinguru zehatzetan ematen da, eta eremu hauetan burutzen diren harreman hauek ezinbesteko dira gizakiaren garapenean. Eremu bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu eta ikasketa desberdinak sustatzen ditu: hurbileko eremutik hasi (etxea, gela) eta giza egituretatik (familia, eskola ...), arlo sozialeraino (kultura ...).

3.3.EBALUAKETA

Informazioa etengabe eta modu sistematikoan jasotzea eta aztertzea oinarritzat duen prozesua da ebaluazioa. Prozesu konplexua da eta elementu guziki hartzen ditu aintzat (irakasle, ikaslea, materialak, ikastetxea, metodologia, baliabideak, curriculum ...). I

Ebaluazioak, hobekuntzarako bide izatekotan, jardun koherente bilakatuko duten printzipio batzuk aintzat hartuko ditu. Izan ere ebaluazioa prozesu bezala ulertzen dugu, ikastetxeko funtzionamenduaren berri eman eta hobetzen laguntzen duen praktika bezala.

Eskolan, hezkuntza erakunde bezala ulertuz, ebaluazioari dagokionean bi eremu nagusi identifikatzen ditugu: Antolaketa eta funtzionamenduaren eremua eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen eremua. Bi esparruetan aurreikuspenen nondik norakoa deskribatzeak eta baloratzeak jardunaren egokitasuna bermatzen lagunduko digu.

Ikastetxeko ebaluazio prozesuak ondorengo hastapenei erreparatzen die:

1 - Integrala: Ebaluazioa hezkuntza prozesuaren oinarritzko osagai bat gehiago den aldetik, beste elementuekin koherentzia izango du. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak, ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa arloa, beste erakunde eta taldeekiko harremanak ... kontutan hartzen dira beraz.

2 - Hezigarria: ikaskuntzen ebaluazioak irakaskuntza bideratzeko aukera eskainiko du.

Ikasleari dagokionean, prozesuan aurrera egin ahala unean uneko premietara egokitu eta ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko ezinbestekoak diren zuzenketak egiteko aukera sustatuko da, adierazitako helburu eta konpetentziak eskuratze aldera.

3 - Etengabea: jardun pedagogikoa etengabe erregistratu, hausnartu eta baloratzea eskatzen du. Horretarako hasiera egoera identifikatu (ebaluazio *diagnostikoa*), unean uneko lorpen eta premietara egokitu (ebaluazio *jarraitua*) eta helburuak eskuratu diren baloratzea (ebaluazio *batutzailea*) ezinbestekotzat jotzen da.

4- Bereizgarria: Ondorio egokia eskuratzeko informazioa lortzen lagunduko duten tresnak askotarikoak izango dira, baloratu nahi den horren arabera.

5-. Parte-hartzailea: ikaslearen heziketa prozesuan parte hartzen duten pertsona orok parte hartuko du ebaluazioan.

3.4.TUTORETZA ETA ORIENTABIDEA

Tutoretza Plana ikastetxearen heziketa – proiektuaren barruan, ikasleen eskolatzearan zehar orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzeko egitura da. Plan honen helburua, ikasle guztiek oinarritzko gaitasunak lortzean datza.

Tutoretza saioen bilakaeran anitza izan badaiteke ere, orokorrean hiru ardatz nagusik antolatzen dute:

- Garapen pertsonala: nortasuna, adimen emozionala, auto.-estimua .
- Besteekiko harremanak: harremanen kudeaketa, gaitasun sozialak ...
- Ikasketa prozesuak: ikasten ikastea; plangintza, informazioaren kudeaketa- egituratu, eraldatu, erabili ...

Tutoretza planaren garapena tutoreari dagokio eta irakasle-taldearekin elkarlanean eta ikasleengan eragina duten beste eragile batzuekin koordinatuta burutzen da. Horretarako irakasle, familia eta ikasleekin harremanetan lan egingo du ondorengo helburuak burutzeko:

IKASLEEKIN:

- Taldean eta ikastetxean integratzea, lankidetzan trebatzea, elkarren arteko laguntza eta besteekiko errespetua sustatzea.
- Ikasketa prozesua jarraitzea eta, behar izanez gero, laguntza bideratzea.
- Une erabakigarrietan aholku ematea.
- Taldeko ordezkariarekin lankidetzan ikasleen eskaerak, kezak eta iradokizunak bideratzea.

IRAKASLEEKIN:

- Irakasleei buruzko informazioa partekatzea, zailtasunak aurreikustea.
- Ikasleen beharrak aztertu eta erantzunak proposatzea.
- Ikasleen jarraipena egin eta ebaluazioa koordinatzea.

FAMILIEKIN:

- Ikastetxearen eta etaparen informazioa ematea.
- Haiengandik informazioa jasotzea.
- Ikaslearen hezkuntza prozesuaren berri ematea, eta elkarrekin lan egitea.
- Une erabakigarrietan aholku ematea.
- Etengabeko harremanetan egotea.

3.5.ANIZTASUNAREN TRATAERA

Ikasle guztiek hezkuntza behar espezifikoak dituzte. Behar guzti horiek modu indibidualizatu batean tratatu behar dira, desberdintasunak baloratu eta desabantaileri aurre eginez, ikasle guztiak sisteman integratu daitezten. Hortaz, aniztasunaren trataerak hezkuntza testuinguruan zera eskatzen du: ikasgelako eta eskolako antolaketa irekia eta malgua izatea, ikasleen premia horiei erantzun egokia eman ahal izateko.

-Inklusio sozialaren sustatzaile: ikasleekin burutzen diren ekintzek desberdintasunen normalizazioan aurrerapausoak ematen lagundu behar dute, bai eskola testuinguruan eta baita kanpoan ere. Halaber, eskolak gabeziak konpentsatzen eta gainditzen lagundu behar die ikasleei. Ikasleekiko arreta pertsonalizatua eta goiztiarra da prebentzio metodorik eraginkorrena ikaskuntza eta integrazio arazoan.

-Eskolako antolaketan txertatua: ikastetxeen lehentasuna ikasleen premiei modu egokian erantzutea da. Honek, antolaketa malgua izatea eskatzen du, bereziki denbora eta espazioen banaketan. Ikastetxeak erabakitzen du, bere beharrak ikusita, zein neurri beharko diren kasu bakoitzean; hala nola, errefortzua gela barruan ala kanpoan edota curriculumaren egokitzapen esanguratsua.

-Curriculumean txertatuta: Curriculumaren egitura eta edukiak aintzat hartu behar du gela eta eskolako aniztasuna.

-Diseinatzen diren ikaskuntza-irakaskuntza egoerek gaitasun desberdinak dituzten ikasleentzako baliagarriak izan behar dira.

-Prozedurazko eta jarrerazko edukiei jakintzei bezainbesteko garrantzia eman behar zaie; are gehiago zailtasuna dituzten ikasleengan.

-Aniztasunarekin erlacionatutako edukiak eta helburuak txertatu behar dira Curriculumean.

-Irakasleen arteko koordinazioa oso garrantzitsua da.

-Metodologia anitzak erabili behar dira, ikasle guztien parte hartzea ahalbidetzen dutenak.

-Taldearen alderdi sozioafektiboa aintzat hartu behar da, autoestima landuz eta besteekiko errespetua garatuz.

-Prozesua baloratzen duen ebaluazio formatiboa bat gauzatu behar da.

-Aniztasunarekiko hartzen diren neurriak ebaluatu eta hobekuntza proposamenak egin behar dira.

-Irakasleen hausnarketan eta elkarlanean oinarritua: Ikastetxeak aniztasunarekiko erantzun koherente bat eskaini behar du eta honek, irakasleen konpromiso eta inplikazioa eskatzen du.

-Irakasle eta familien arteko elkarlanaren aldekoa: Irakasleen eta familien arteko elkarlana oso garrantzitsua da ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei dagokienean. Beraz, harremana eta informazio trukeak erraztasunez eman behar dira eta familien inplikazioa lortu behar da maila pertsonalean eta baita eskolako dinamikan ere.

-Ikastetxea komunitatera irekitzearen aldekoa: Ikastetxea ingurune jakin batean kokatzen da eta komunitatean integratu behar da. Inguruan dituen baliabideak aprobetxatu behar ditu (pertsonalak nahiz erakundeak) ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan egin ditzaketen ekarpenengatik. Honek, ikasleen aniztasunari erantzun integral bat ematea ahalbidetu dezake.

3.6.HIZKUNTZAREN TRATAERA

Ikastetxeko Hizkuntza Planean zehazten den bezala, ikastetxearen helburu nagusietako bat euskara bultzatzea da, beti ere, testuinguru kulturantz, eleanitz eta globalizatu batean bizi garela kontuan hartuz.

3.7.PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA

Etengabeko prestakuntza eta berrikuntza irakasleen garapen profesionalean ezinbestekoak diren zutabeak dira. Gizartearen aldaketak etengabekoak diren honetan, irakasleen aldetik esfortzua eta inplikazioa behar da garai berrietara moldatzeko eta gure ikasleei erantzun egokia ematen lagunduko diguten tresna eta baliabideak eskuratzeko.

4. IRAUNALDIA ETA BERRISKUSPENA

2016 – 2017 ikasturteko ekainaren _____ OOG –eko batzarrean onartutako dokumentua izanik, bere indarraldia data honetatik aurrera abiatzen da.

Dokumentu honek izango duen iraunaldia 5 urtetakoa izango da eta zuzendaritzak ikasturteko berrikuspen bat ezarriko du, ondoren, eskola komunitateari burututako aldaeren berri ematen diolarik.

IKASTURTEA	IHParen indarraldiari eusteko eta atxikimendua sendotzeko egindako ekintzak	Berrikusitako IHParen alderdiak eta eguneratutakoak
2016 – 2017	<ul style="list-style-type: none">• Klaustrokide guztiek IHParen berrikuntza hausnartu eta berritu.• Eskola komunitateari eginiko lanaren aurkezpena eta ekarpenentzako denbora tartea eskeini.• OOG.enean dokumentua onartu.	Aldaketa orokorra izanda, gidak markaturiko eskema jarraituz.
2017 – 2018		
2018 – 2019		
2019 – 2020		
2020 - 2021		